



Garagaltzarren erromerixia



Sartu gara bete-betian herriko eta auzuetako jaixetan aurten be. Pasau barri dira Errekalde eta Olako jaixak, Trinidadiak, Korpusak, San Juanak eta San Pedruak. Hori dala-eta, gaurko honetan **San Juanetako** argazkixa dakartzuegu. Sasue batian bi lekutan zelebraitten zan fiesta hau Oñatin: behian, San Juan kaleko plazuelan, eta goixan, Garagaltza auzuan, San Juan ermita inguruan, jakiña. Bixak izaten ziran, bakoitza bere erara, jentetsuak eta animaduak: San Juan kalekuak kale-tarraguak eta Garagaltzakuak baserri-girokuak.

Garagaltzarrak etziran egun batekin konformaiten eta San Juan bixamonian eukitten euen euren ospakizunik haundixena. Erromerixia ederra izaten zan Gaztelondo aurrian. Baiña etziran goixan, San Juan auzuan bakarrik, errenditten, eta kale aldian be zabalketan euen euren alaitasuna itxaflero eta kalejira zaratatsuakin. Soñujole eta jazbanista onak eukitten zittuian Garagaltzakuak. Urte eskuan Oñartzun aldeti etorri ziran auzoko jaixak animaitera.

Berrogei urte pasatxo eukiko dauen fotografixa honetan agerketan diran gehixenak auzotarrak edo auzotarren seme-alabak dittugu. San Juan kaleko neskatilla-mutiko batzuk be badagoz. Illarak oso garbixak ez badira be, saiaturko gara izen-abizenok ahalik eta zehatzen emuten. Behetik gora eta ezkerrik eskumara honeitxek ezagutu dittugu:

Behe-behian makurtuta edo jarritta: Ramon **Arkauz**, *Kamamuñokua*; Xipri **Egaña**, *Arregikua*; Tere **Carrasco**, aurrekuaren nobixia; Bixente **Olalde**, *Gaztelondokua*; Maria Anjeles **Biaín**, *Etxebarrialdekua*; eta Jexux Mari **Albizu**, *San Juanekua*.

Zutik bigarren ilaran: Mari Jesus **Odrizola**, *Otxuatarren* tartekua, mondraguetarra, bere nobixuarekin; Tomas **Anduaga**, *Gaztelondokua*, erdi-makurtuta hau be; Jesusa **Biaín**, *Etxebarrialdekua*; Migel **Albizu**, *San Juanekua*; Matxelin **Galdos**, *Kurpidekua*; Joxe Luis **Arkauz**, *Kamamuñokua*; Manolo **Olaziregi**, jazbanista, Oñartzungo Ugaldetxo auzoko *Txikiardi* sagardotegikua; honen atzian Xanti **Azkargorta**, *Iruatz Garaikua*; Ana Mari **Arkauz**, *Kamamuñokua*; honen aldamenian, erdi-ekzuta, Karmen **Zubia**, *Urruxolakua*; **Pako soñujolia**, oñartzuarra hau be; eta soñujoliaren atzian Juan **Guridi**, *Iruatz Katxuenekua*.

Hirugarren ilaran: erdi-ekzutuan, Joxe Ramon **Biaín**, *Etxebarrialdekua*; Jabier **Olalde**, *Gaztelondokua*; Jabier **Biaín**, *Etxebarrialdekua*; Joxe Ramon **Arabaolaza**, *Kurpidetarren* tartekua; Patxi **Arkauz**, *Kamamuñokua*, erdi-ekzutuan; Juan Mari **Katarain**, *Iruatz Katxuenekua*, erdi-ekzutuan; Iñaxio **Olalde**, *Gaztelondokua*; Mari Paz **Egaña**, *Arregikua*; Jexux **Kortabarria**, *Benturena*, ixa ekzutuan; eta X.X.

Laugarren ilaran: Joxe Luis **Oianguren**, *Zañartu Etxebarrikua*; Joxe Andres **Leturia**, *Etxague*, zubillagarra, *Garagaltza Haundikuan* morroi eguena; Antonio **Azkargorta**, *Iruatz Garaikua*; Jexux **Erostarbe**, San Juan kaleko *Silbestrana*; honen ezkerretara hiru-lau umetxo: bestiak beste, Antonio **Anduaga**, *Gaztelondokua*, eta Milagros eta Iñaxio Mari **Otamendi**, honeik be *Gaztelondo* tartekua; Joxe Mari **Galdos**, *Kurpidekua*; Milagros **Anduaga**, *Gaztelondokua*; atzian, erdi-tapauta, bere ahizpia Gloria **Anduaga**, *Gaztelondokua*; Juanito **Erostarbe**, *Etxebarrialdekua*; eta Manttoni **Arkauz**, *Kamamuñokua*.

Goixeneko ilaran: Anjel **Biaín**, *Etxebarrialdekua*; Arantxa **Biaín**, *Etxebarrialdekua*; Arantxa **Olalde**, *Gaztelondokua*; Agustín **Otamendi**, *Gaztelondo* tartekua; Joxe Mari **Olalde**, *Gaztelondokua*; Jexux Mari **Anduaga**, *Gaztelondokua*; Felix **Azkargorta**, *Iruatz Garaikua*; Maixabel **Urtaza**, San Juan kaleko *Kirriñenekua*; Esperantza **Galdos**, *Kurpidekua*; eta Jabier **Bikuña**, *Albarrizako* hargiña.

J. E.

Erretratua Patxi Elortza fotografuak 1961-1962 aldera ataraitakua da. Gure eskuetara Iñaxio Olalderen bidez heldu da. Argibidiak, berriz, Iñaxio eta Bixente Olalde, Jexux Albizuk, Mari Karmen Anduagak Joxe Luis Oianguren eta Xalbador Urizarrek emun doskue. Milla esker dano!